



2012ko lehen saria.
Ana Valderrama Pérez

BERRIOZARKO JAIEKAKO KARTEL LEHIAKETA 2013ko OINARRIAK

1. Lehiaketa Berriozarko jaiekin lotutako gaiak aurkeztuko dira. Egile bakoitzak, gehienez, 3 lan aurkeztuko ditu. Lanak jatorrizkoak izanen dira.
2. 2 kategoria izanen dira:
Haurrak: 14 urte baino gazteagoak
Helduak: 15 urte baino zaharragoak
3. Neurria: *Helduen lanak: 30 x 42 cm, zutikako formatuan.*
Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira (luma-kartoia edo antzekoa)
Haurren lanak: 15 x 21 cm, zutikako formatuan.
4. Kartelen **estiloa** eta **teknika** libreak dira. Irabazleak multimedia-teknika erabiliz gero, Udalak lan irabazlearen kopia CD batean ematea eskatu ahaliko dio.
5. Lan guztietan honako testua idatziko da:
Fiestas de Berriozar del 28 de agosto al 1 de septiembre de 2013 Berriozarko Jaiak 2013ko abuztuaren 28tik irailaren 1ra.
Lanak jatorrizkoak eta argitaratugabeak izanen dira. Lehiaketatik kanpo geratuko dira baldintza horiek betetzen ez dituzten kartelak.
6. Kartelak Berriozarko Udaletxeko Auzo-Bulegoan aurkeztuko dira (Kaleberri 7, 31013 Berriozar) maiatzaren 13tik ekainaren 7ra, goizeko 8etatik 14etara.
7. Kartelak gutunazal itxi batean aurkeztuko dira egilearen sinadurarik gabe eta aukeratutako izenburua idatzita. Beste gutunazal batean, itxita eta izenburu bera idatzita, egilearen datuak sartuko dira: izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, adina, helbidea, herria eta telefonoa; baita aurkeztutako lanaren esanahiari eta motibazioari buruzko azalpen laburra ere.
8. Kartelaren izenburua gaztelaniaz, euskaraz edo bi etelan aurkeztuko da. Hizkuntza bakarra aukeratzeko bada, Berriozarko Udalak itzulpena egiteko eskubidea izanen du.
9. Epaimahaia Kultur Koordinakunde kideek eta langile teknikoek osatuko dute. Koordinakundeburua izanen da epaimahaiburua. Kultur Teknikariak idazkari lanak egingen ditu (hitza izanen du eta botorik ez) Epaimahaia erabakia apelaiezina izanen da eta ohiko hedabideen bitartez jakinaraziko da.
10. Sariak: helduen kategorian sariak eskudiruzko ordainketak izanen dira (izendun txekak, dagokien PFEZ kenduta). Haurren kategorian, sariak herriko dendetan trukatzeko baleak izanen dira.
Helduak: 600 euro
Helduak (berriozartarrak): 300 euro
Haurrak: 150 euro
11. Berriozarko Udala izanen da saritutako kartelen jabea. Berriozarko Udalak kartel sarituen nahi adina erreproduzio litografiko edo bestelakoak egin ahaliko ditu, nonahi erabiltzeko, eta egileek ez dute inolako erreklamaziorik egiterik izanen.
12. Berriozarko Udalak erakusketa antolatuko du abuztuaren 12etik 28ra parte hartutako kartel guztiekin edo horietako batzuekin. Kartelak aipatu erakusketa bukatu eta hilabeteko epean itzuliko dira.
13. Lehiaketa parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Arau hauetan airreikusitako gabeko edozein zalantza edo gorabehera epaimahaia ebatziko du.